| Onuradunak *Beneficiarios* | Diru Laguntza (eurotan) *Subvención (en euros)* |
|---|---|
| Fabril De Restauraciones, S.L. | 168,30 |
| Club Marco Polo, S.L. | 5.704,27 |
| Boroalde, S.L. | 464,85 |
| Rallye Desarrollo y Franquicia, S.L. | 1.096,92 |
| Castillo Arteaga, S.L. | 2.725,00 |
| Kaian Plencia, S.L. | 2.725,00 |
| Aretz Ondo, S.L. | 2.950,00 |
| Monte Arresi, S.L. | 220,45 |

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 24a.

Administrazioko
eta Lehiakortasuneko zuzendaria,
MERCEDES RODRÍGUEZ LARRAURI.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2006.

La Directora de Administración Turística
y Competitividad,
MERCEDES RODRÍGUEZ LARRAURI.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

**5**

EBAZPENA, 2006ko abenduaren 11koa, Gizarte Ongizateko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitzen duena.

Azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuak (abenduaren 5eko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortzen du. Bere IV. kapituluan elkarteen ordezkariak izendatzeko prozesua ezartzen da.

Kapitulu horretako 15. artikuluak –Eskaerak Jasotzeko Liburuari buruzkoa– arautu duenaren arabera, Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartzeko epea, Kontseiluaren Osoko Bilkurako elkarte-ordezkariak izendatzeko prozesu bakoitzean, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak ezarriko du. Artikulu horren arabera, epe hori, tartean aparteko arrazoirik ez bada, hiru urtean behin zabalduko da.

Elkarteek, Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartu ahal izateko, aipatutako 289/2003 Dekretuko IV. kapituluan ezarritako eskakizunak eta betebeharrak beteko dituzte eta eranskinean ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskaria.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

**5**

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2006, de la Directora de Bienestar Social, por la que se abre el plazo de presentación de solicitudes en el Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

El Decreto 289/2003, de 25 de noviembre, por el que se crea el Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco (BOPV de 5 de diciembre) establece en su Capítulo IV el proceso de designación de representantes de las asociaciones.

El artículo 15 de este Capítulo, relativo al Libro de Anotaciones de Solicitudes, prescribe que el plazo para la anotación en el mismo, será el establecido por la Dirección de Bienestar Social en cada proceso de designación de representantes de asociaciones en el Pleno del Consejo. En virtud de dicho precepto, este plazo, salvo razones extraordinarias, se abrirá cada tres años.

Las asociaciones, para anotarse en el Libro de Anotaciones de Solicitudes, deberán reunir los requisitos y cumplir las obligaciones establecidas en el Capítulo IV y remitir la solicitud de participación siguiendo el modelo establecido en el anexo del Decreto 289/2003 citado.

Ondorioz, eta azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuaren 17.2 artikuluari jarraituz, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak EHAAn berariazko argitalpena eginez jakinaraziko du eskabideak aurkezteko epea. Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Ijitoen eta ijitoen aldeko elkarteek Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartzeko eskabidea aurkezteko epea 10 egunekoa izango da EHAAn ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskabidea Gizarte Ongizateko Zuzendaritzara igorri behar da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen den eran (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

***Bigarrena.***– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 11.

Gizarte Ongizateko zuzendaria,
CARMEN VICIOSO ETXEBARRIA.

En consecuencia y a tenor de lo establecido en el artículo 17.2 del Decreto 289/2003, de 25 de noviembre, que dispone que la Dirección de Bienestar Social, mediante publicación en el BOPV, comunicará el plazo de presentación de las solicitudes de anotación,

RESUELVO:

***Primero.***– Comunicar que el plazo para que las asociaciones gitanas y progitanas puedan presentar las solicitudes de anotación en el Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo es de 10 días a partir del día siguiente a esta publicación en el BOPV.

Dicha solicitud podrán presentarla a la Dirección de Bienestar Social, calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz en la forma prevista en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

***Segundo.***– Disponer la publicación en el BOPV de la siguiente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2006.

La Directora de Bienestar Social,
CARMEN VICIOSO ETXEBARRIA.

## KULTURA SAILA

## 6

AGINDUA, 2006ko azaroaren 20koa, Kultura sailburuarena, Zestoako (Gipuzkoa) Arocena Hotela, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2006ko martxoaren 23ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpenaren bidez Zestoako (Gipuzkoa) Arocena Hotelak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedien-

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 6

ORDEN de 20 de noviembre de 2006, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Hotel Arocena en Zestoa (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Hotel Arocena en Zestoa (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 23 de marzo de